IZENA: ..... DATA. .....

ESKIMALAK

Eskimalak gugandik oso urrun bizi dira, Ipar Poloan.

Behin eskimalei bisita egin zien bidaiari batek honela deskribatu zuen: "Buru handia; ile beltza eta bizar gutxi; aurpegi eta aho zabalak; begi txikiak eta zeiharrak; sudur motza; esku eta oin txikiak. Loditxoak eta sendoak; ez bereziki altuak, ezta oso txikiak ere".



Hartz, otso eta azeri larruz estaltzen dute beren gorputza. Gizonak eta emakumeak berdin jantzita doaz. Mahuka handiko txanodun jantziak dira, eta horien azpian larruzko galtzak eramaten dituzte. Botatxoak janzten dituzte eta negu gorrian larruzko hiru zapata pare, elkarren gainean jarrita.

Fokaren eta balearen haragia dute gustukoen.



Udan foka larruzko dendetan bizi dira, eta neguan igluetan. Igluaren erdian sua eta olio lanpara daukate.

Poloetako gau hotzenetan ekimalak ez dira haien etxeetatik irteten. Abuztua eta iraila dira lan handieneko hilabeteak baleak ehizatzeko. Horretarako, egurrezko kanoak, "kayak" izenekoak, eta arpoiak, arkuak, geziak, aizkorak... erabiltzen dituzte.

Eskimalak atseginak dira eta beti harrera ona egiten diote kanpotarrei. Oso baketsuak eta ekologistak dira, bizitzeko behar dituzten animalia kopurua, besterik ez dute ehizatzen.

1. **Galderak erantzun itzazu:**

   - ✓ Zein animalia ehizatzen dituzte eskimalek haien jantziak egiteko?

   - ✓ Zeintzuk dira eskimalek erabiltzen dituzten etxe motak?

   - ✓ Noiz ehizatzen dituzte baleak?

   ---

2. **Esan egia (E) ala gezurra (G). Gezurra diren esaldiak, berridatzi, egia izateko zuzenduz.**

   - ✓ Eskimalak oso bizardunak dira.

   - ✓ Eskimalen begiak txikiak dira eta aurpegi zabala dute.

   - ✓ Jateko gehien gustatzen zaiena foken eta hartzen haragia da.

   - ✓ Igluetan ez dute argirik.

   - ✓ Abuztua eta irailak ez dira hilabete onak baleak ehizatzeko.

   - ✓ Eskimalen kanoak Kayak deitzen dira.

   - ✓ Eskimalei ez zaizkie pertsona ezezagunak gustatzen, hori dela eta, bisitariei ez diete kasurik egiten.

   - ✓ Eskimalek nahi duten animalia kopurua harrapatzen dute.

   ---

3. **Gustatuko litzaizuke eskimalak ezagutzera joatea? Zergatik?**